

# ANAITASUNA

B I Z K A I A

169 gn. zenb. — 1968, irailak 30 — 4 pta.

Torre, 3, 1.º - Bilbao (5). Tel. 24 14 67

**PERIODIKUAK EZ DIÑOENA**

## Txekoslobakiako Kristiñauak

«Non komunismua, antxe inpernua. Gu, komunismuan gagoz. Gu, inpernuan gagoz». Auxe diño Txekoslobakiako katolikuak.

Noizbait, bigundu egingo ei da komunismua. Ori, siñisbera\* batzuk bakarrik aintzat artu leikee: sasi estrategak, teologia abstraktua maite daben teologuak, komunisten kartzeletan egon ez direan abadeak, guzurrezko propaganda iruntsiten daben kristiñau memeloak.

Oestaldeko katoliku geienak, itsukerian bizi dira. Ez dabe ikusten komunismu militantearen indar ikaragarria. Bearbada, indar orregaz konturatzen direaneko, beluegi izan leiteke askorentzat.

Komunismuaren aldeko berba politakaz, ez dira lotu eragiten pantzerrak\*, ez dira biztu erazoten illak.

Gauza batek bakarrik salba leike komunismutik mundua. Baiña gauza ori, gitxi edo bape ez da aitatzen kristiñauen artean. Gauza ori, otoitza da.

«Erreza, erreza asko, erreza egunero errosario santua». Eleizearen eskari one-ri barragarri deritxagu, eta entzungor egiten deusagu.

Errezetan dabeneri, modernuak ez dira reala ta, adarra jotzen deutsegu.

● **ARABAKO EUSKAL ABESTIAK DIREALA TA**  
6 gn. orriald.

● **GURE GAZTEAK ZEGAITIK EUSKALERRITIK IGESI**  
7 gn. orriald.

● **IPAR AMERIKAKO MONJAK**  
9 gn. orriald.



Non komunismua, antxe askatasunaren urkamendia

Txekoslobakian, edozein eskola mutillek daki, munduan ez dagoala indarririk, pantzerrakaz\* eta abioiakaz aurrera doan komunismua geldo erazo leikenik.

Eleizeak, aintxiñatik eskatzen deutso Jaungoikoari: «Emoiguzu, Jauna, bakean, soseguan eta askatasunean zerbidu zaiguzala. Zeure Eleizearen arerioak umilla eizuz, Jauna».

Ala uagutzibe, oestaldeko kristiñau askoren ustez, otoitz ori antigualeko ondakin utsa da, gaurkotasun bakoa, gizonen arteko anaitasunaren kontra doana.

Oestaldeko kristiñauok, «modernuak» izan gura dogu; eta ez dogu aintzat artzen, galtzairuzko esiaren\* heste aldean bizi direan kristiñauen ustea.

Oneek barriz, ogetaz\* urte daroez ixilik, mututuririk; eta ezin leikee ulertu, komu-

nismuaren aurrean guk daukogun arrokoria edo indiferentzia.

Euren ustez, Rusiak ez zituan bere okerrak mundu guztian zear zabalduko, Jaungoikoak eskatzen deuskuna —otoitza— eten\* barik danok egin bagendu.

Orren ordez, esne mamiñetan bizi gura izan dogu, eta gure poza ortxe finkatu dogu, gure inguruan pasetan danagaz konturatu barik.

Nok orain lotu erazo Jaungoikoaren arerioen indarra? Nok eustorma\* bat ipiñi komunismuaren uiolari\*?

Utopistak bakarrik uste izan leikee, ori gizonaren esku soilletan\* dagoala.

Orretarako bide bakarra, bide «modernua», auxe da: Otoitza.

(Alemaniako BILDPOST aldizkaritik euskeraztua)

## URIGOITI

Agostuaren amaikagarrenean, San Lorentzoren jaieguna.

Goiz goizean, txistulariekin kale jirak.

Amaika ta erdietan, euskal meza kontzelebratua. Meza bitartean, Enbeitatar aita-semeak, Balentin eta Abel, bertsotan ari\* izan zirean; Itxinapeko dantzari bik, dantzan egin eben; eta Joseba Gotzon Aramendi, bertoko txistulariak, txistua jo eban.

Meza ostean, amabi ta erdietan, euskal dantzen erakusketa eder bat eskifia euskuen Mungiko «Eusko Amets» taldeak eta bertoko «Itxinape» taldeak.

Arratsaldeko seiretan, euskal jai oso polita egon zan. An agertu zirean: Maite Idirin, Argoitia neba-arrebak, Ondarroako «Beti Alai» taldekoak, Bittor Egurrola eta Enbeitatar bertsolariak.

Amaitzeko, «Agur Jaunak» abestu eben Ander Arantzamendik eta Joseba Mikel Zorrozuak, Joseba Gotzon Aramendik txistuagaz lagunduten eutsela.

Illuntzean, ikaragarritzko erronomia «Paikoak» taldearen kontura. Talde au orkestra bat da, eta euskeraz abestuten dabe.

### KAKEL ARAMENDI

## IBARRA

Agostuaren amabosgarrenean, polito ospatu dogu Ibarra Andra Mariaren jai-egun aundia.

Goizean, kale jirak, eta gero Meza Nagusia euskeraz eta kontzelebratua. Mezatar sartukeran, Nestor Goikoetxeak albo-keka jotzen jardun eban. Meza bitartean, Urigoitin lez, Enbeitatar bertsolariak bertsotan ari\* izan zirean, eta Itxinapekoak dantzan egin eben eta txistua jo bere bai. Meza ostean, kale jira bat eta «Itxinape» taldekoen dantzak.

Arratsaldean, sei ta erdietan, euskal jai bat. Antxe ikusi genduzan jardunean: Maite Idirin, Saenz anaiak, Bittor Egurrola, Ondarroako «Beti Alai» taldekoak, Nestor Goikoetxea albokaria eta Enbeitatar bertsolariak.

Gauean erronomia, «Paikoak» orkestraren kontura.

Biamonean, San Roke egunean, goizean, euskal meza, eta ostean «Itxinape» taldekoen dantzak.

Arrastian, gauza oso interesantea izan zan, umeentzat egiñiko euskal abestiaren lenengo txapelketea.

Bederatzi abeslari talde agertu zirean; eta oneixek dira euren izenak, abestiak eta puntuaziñoa:

Itziar Bazoa  
Aintzane  
«Salamancara»  
«Baserritarrak»  
22 puntu

Joseba Arbaiza  
Josune Aldecoa  
Idoia Azcoaga  
«Goiko Mendian»  
«Pello Josepe»  
24 puntu

Conchi Echebarria  
Mari Carmen Malzarraga  
«Yenka»  
«Geronimo»  
28,5 puntu

Olga Larrea  
Miren Jesus Olabarria  
Luis Inchaurrea  
«Ixil Ixilik»  
«La, La, La»  
31 puntu

Miren Inchaurrea  
Rosa Mari Olabarria  
Yayone Aldecoa  
«Gaztetxo Naiz»  
«Uda Barria»  
38 puntu

Aurorita Larrea  
Alberto Diaz  
Bego  
«Amets Amets»  
«Andre Madalen»  
38,5 puntu

Mari Carmen Larracoechea  
Mari Asun Rotaetxe  
«Ikusten Nebanian»  
«Cubatik Urtetzean»  
43 puntu

Izaskun eta  
Elisabete aitzak  
«Maitetxo»  
«Agur Agur»  
46 puntu

Jose Ignacio Azcoaga  
Javier Maria Aramendi  
«Egunsentia»  
«Zenbat Gera»  
46,5 puntu

Jai guzti oneik, «Itxinape» taldeak egin dauz erriaren laguntasunagaz.

### KAKEL ARAMENDI

## PELOTA LEKUA

Gure erri onen barriak ANAITASUNAN lenengoz agertzen ete diran nago. Irakurle guztiak ezagutzen ete dabe, Kalamuaren bealdean eta Markiñatik urre dagoan erri politu au? Askok, bertoko pelotariak dirala ta, bai arenbaten\*. Emengoak ditugu, izan be, Jesus Larrañaga, Ondarres, Etxabetarrak, Zuluaga, Guenetxea ta beste asko. Ta pelotariak aitatu doguzan ezkerro, esan bearrean gagoz, bertoko pelota toki ederra estaltzeko ustea dagoala.

## GAZTEAK

Iru-lau illabete ba dira, Etxebarriko gazteak bertan, Bariñagan eta Markiñan antzerki\* ta abesti jaialdi ederra egin ebela: iru ta lau abotsetara bederatzi euskal abesti, ta «Nire senargeia» ta «Okillomendi alkate» antzerkiak.

Udako oporraldia igaro ondoren, barriro be beste erri batzuetan jarduteko usteaz, abesti ta antzerkiok lenbailen gertetan asteko ei dira.

Baita, entzun dogunez, Aita Jose Domingo musikari ospetsuak oraintxe barrien barri asmatutako iru abotseko Meza barri bat ikasten be asteko ei dira.

Eta orrekin batera, guztion premiña gorria ikusiaz, euskal alfabetaziñorako ikastaldi bat gertetako ustea be ba dabe gure gazteok. Egin be, nun, Bizkaian, emengo gazteak egiten daben lango euskera aberats eta dotorea? Aurrera, gazteok!

## SAGASTIAK

Sagasti barriak sartzeko ardurea sortu da Etxebarriko baserrietan. Batzuk ba dakie onen barri; eta beste batzuri, jakiteko gogoia sartu jake. Neguan sartuko dabezanak be, ba dira. Oneintzako, «Agencia de Extensión Agraria»k, Asturiasera joan-erria eratu dau; baiña ez denpora pasagarri, kondiziño bi oneik betetakotan baiño: neguan sagasti barri orreik sartu, eta leenago, orretarako izango dan kursillora joan. Ikastaldi orretan, ze klase sartu, zelan zaindu ta beste zertzelada\* guztiak azaldu ta irakatsiko dira.

Laster Etxebarrian, sagar gozoak eta ugari jan bear doguz.

## EZKONTZAK

ANAITASUNAREN ale\* onek urten orduko, gure erriko neskatilla bi ezkondu izango dira: Txikiñeko Maria Luisa Egurrola, Berriatuko Teodoro Bilbaogaz; eta Errotabarriko Rosa Mari Arrieta, Bar Etxanoko Juan Jose Kalzakortagaz. Zorionak!

### GADU

## MARKIÑA

Gure parrokiak jai berezi\* bat ospatu dau Andra Mariaren Asuntziño egunean, beronen zaindaritzapean dago ta. Meza nagusi ederra izan zan. Abeslari taldeak euren abots alai eta kementsuak agertu ebezan, Ama ori goratzeko. Euron zuzendari, Aita Jose Domingo karmeldarra ta Don Martin abadea izan ziran. Don Jesus, Ondarroako abadeak izan eban itzaldia, Amaren biotz samur eta errukitsua azaldurik.

Meza ostean, oitura dan aurrekua egin zan, eta alaitasun aundiagaz egin be. Ama onek gogoan izango dau, bakotxak bere omenez\* egindakoa.

Agostuaren 21'ean, Markiña ta inguruetako erromesak, urtero lez, Arantzazuko Amari ikustaldia egin eutsoen.

San Bartolome egunean, dantza soltuko sariketak izan ziran. Leenengo saria, erritarrak jaso eben.

### BAKEZALE

## "KRISLU" ANTZERTI-TALDEA

EUSKAL TEATRO ONA EGITEKO  
BEHAR DIRA  
EUSKALDUN NESKA-MUTILLAK

Bilbon bizi diranak  
eta euskal errietan zear  
ibilteko prest dagozanak

Deitu:

Migel Anjel Etxearte: 23 45 51

Leopoldo Legarreta: 31 13 07

Gabriel Aresti: 32 46 66

## IRAKURLEEN ERITXIAK

# LOTSEA, LOTSEA!

Bai, lotsea! Orixe da gure barrena astintzen eta naasten dauan sentimentua, ANAITASUNAK azkenengo zebakian argitaratu dauan anuntzioa irakurritakoan.

Euskaldun izatearen lotsea!

Ona emen, ANAITASUNAK esaten eta eskatzen dauana: «Irakurle barriak geituten ez badira, gure aldizkari onek ezin urten izango dau».

ANAITASUNAK zenbat irakurle daukazan gaur, eta zenbat bear dituan biziteko, ez dakigu. Bardin da.

Egia, egia latza auxa da: Euskalerrian, euskaldunok amabosteroko aldizkari euskaldun bat ezin dogula azaldu! Urtean 75 peseta ordainduko dituen euskaldunak ezin aurkitu!

Eta ez dau balio, guk gipuzkoarrok ZERUKO ARGIA daukagula esatea. Ez! ANAITASUNA, bizkaieraz idatzia izan arren, euskaldun guztion aldizkaria da.

Ori bai: iñorentzat lotsagarri bada, bizkaitarrentzat lenen lenen. Bizkaitarrak, bereziki\* beartuak dagozalako aldizkari orreri laguntzera.

Orrelako gertaerak\* ikusten ditugunean, gure kolkoan esaten dogu: Zetarako orrenbeste marmar eta protesta, eleizetan mezak euskeraz egiten ez direala ta? Zetarako orrenbeste zarabanda, eskoletan gure euskerea erakusten ez dalako? Zetarako orrenbeste orru euskerearen alde? Gero, amabosteroko aldizkari bat azaltzeko gai\* ez bagara?

Eleizetan euskerea on eta bearre-

koa da, jentea euskeraz mintzo\* danean. Eskoletan euskerea on eta bearrekoa da, jentea euskerea maite dauanean. Eta gaur erriak euskerea maite dauan ala ez agertzeko, erria euskeraz mintzo dan ala ez adierazoteko agerbiderik egokienetako bat, euskerazko aldizkaria dogu.

Eta aldizkari ori ezin azaldu! Amabosteroko bat ezin argitaratu!

Bai, penea baiño geiago, lotsea sentietan dogu.

Ona emen, gure ikasbiderako, katalanak argitaratzen dituen aldizkariak: «Serra d'Or», illerokoa, 15.000 alegaz\*; «Tele-estel», asterokoa, 50.000 ale baiño geiagogaz; «Caval Fort», illean iru aldiz, 35.000 alegaz; «L'Infantil», 10.000 alegaz. Eta laster, eguneroko bat eukiko dabe: «Está formada la Sociedad, está puesto el nombre: Migdia», irakurten dogu S. P. egunerokoa.

Eta guk euskaldunok zer diñogu?

Ona emen, Juan San Martin jaunak bein idazten ebana: «Gure errietan, liburu denda baten orde, irurogei taberna... Ogei millaren artean, besteun liburu saldu eziñik...».

Bai, penagarria baizen lotsagarria! ANAITASUNA lako amabosteroko bat ezin bizi!

Zuzendari jauna: Iñoren izenik ez deusut emoten; baiña zeuk nai dozunari biartzeko, bost suskriziño bari ordaintzen deusudaz.

HERNANDORENA, Ondarrabia

LANTEGI ERRAMINTAK

LANTRESNA GUZTIETARIKOAK

GALTZAIRU KALIBRATUAK

LEUNKETA GAIK

## FERRETERIA UNZETA

Apartado 18. Ibarrecruz, 14

Urrutizkiña 71 10 00

EIBAR

## ANAITASUNA

amabosterokoa

16

Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURU

Zuzenbidea: Torre, 3, 1.º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaiña: 75 peseta


Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 169 gn. zenb. — 1968, irailak 30

D. L.: BI 1.753 — 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12

# BISITATZAILLE BATEN BIOZKADAK



Arantzazuko eleiza ta komentu miragarriak

Oraintsu izan naiz Arantzazun nire familiagaz.

Zazpi urte zirean, Arantzazura joan ez nintzana. Azkenen-goz, ezkontza ostean, nire emazteagaz. Orain, zazpi urtegarrenean, geure iru umeakaz. Irugarrena, jaiobarria.

Barrero, Basilikearen irudi miragarria geure aurrean. Atx artetik erretako atx lora bat bezela\*.

Barruratu giñean. Leenengo aldiz ikusten neban altara nagusiko dekoraziñoa. Zurtuta gelditu nintzan, nire barrenean sortzen zirean sentimentuak zelakoak zirean ez nekiala: atsegin-tasun ala mukertasunezkoak\*.

Bereala\*, Euskal Erriko mendiak zireala iruditu jatan. Bai, nire irudimenak, goitik beera, Euskal Erriko lurralde menditsu guztiak ikusten zituan.

Baiña mendiok ez zirean berde, beti egon oi\* direan bezela. Illun, erreta lez egozan.

Eta Andra Mariaren irudia euren erdian. Aintxiñako jan-tziak barik. Errodrigo artzaiñak aurkitu eban modu berean. Ain txiki, ain tolesbage, sinbolu bat zirudian\*. Kaos itzal aren erdian, esperantzearen sinbolua zan benetan. Otoitza, berez etorren ezpanetara: «Erri dana artu eta zaindu, Ama».

Gero, Basilikatik urten; eta aro onak eraginda, Oteitzaren eskulturak dagozan bide ertzeraño ibilli giñean.

An egozan arri aundiok: lau-bost apostolu, erdi amaituta, lurrean, beertuta, umilduta, tripaz gora (edo obeto esanda, tri-parik-ezaz gora).

Beste apostoluak, arri blokeen barruan, oraindiño jaio barik. Artisteak izan erazo arte begira. Betiko ete?

Eskulturak obeto ikusteko, euren gaiñera igon neban salto baten. Arestiren bertsoak gogoratu jatazan:

«...bularretik eginikako baten ttua\*,  
edo gurdi\* batek zapaldurikako arratoiaren hilotza\*  
balira bezela\*...»

—¿Qué le parecen a Vd. esas esculturas?

Erderaz egindako itaun ustebage onek atara ninduan supituan\* nire gogartetik.

Abade bat zan. Meea, betaurreko illunak, liburutxu bat eskuan.

Ez nekian zer erantzun. Eskulturak euren lekuan egon balira, artisteak asmatu ebazan moduan ondo jarrita egon balitzaz, orduan bakarrik ikusi aal izango genduan euren egokitasuna, jakin aal izango genduan, artisteak bere lan barrizaleagaz zer esan nai izan eban.

Orixe esan neutsan abadeari.

Berak ez ekian euskerarik, eta erderaz jardun bear.

Abadea ez egoan nire erantzunagaz konforme; eta beste barik, bere eritxia emon eustan: Eskultura areek, «mamarrachada» bat zirean. Ezin eikeen deboziñorik sortu erazo iñogan. Ez eben ezer esaten.

Olan jardun eban abadeak, eta komentzidu gura ninduan antza.

Nik, neure aldetik, aalegiña egin neban, berari erakusteko, eskultura modernu areek zelan begiratu bear zirean. Alperrik. Abadeak prejuizio larregi eukan buruan; eta ez egoan prest, ideia barrieri aterik edegiteko.

Bearbada, euskeraz jakin izan baleu, ulertuko eustan.

Bakotxak bere lekuan amaitu genduan... eta lagun.

Ume txikiena, lo egoan. Beste biak, apostoluen gorpuetan gora ta beera ebiltzan, pozarren, olgetan. Umeok, zetarako bat emon eutseen eskultureri.

A. PEREZ BILBAO

## Martin Aldazabal

EUNAK

SOIÑEKOAK

AZPIKOIALAK

Emakume, gizon, gazte ta umeentzat  
Baita etxerako gaiak, zatika naiz atonduta

Telefonoak: 210484 - 231285 - 231286 - 231287

Tendería, 3

BILBAO (5)

# MUGEA IGAROTEN DABENAK

«Berlin askatasunaren erria bada, ni Berlingoa naiz», esan eban Kennedyk. Baiña Berlin, ez da askatasunaren erria.

Berlinen be, askatasuna gura eben asko il dabe. Kennedy bera ilgo eben lez: ti-roka.

Berlin, erdibiturik dago. Eta oestaldeko kapitalismuaren aize zantarrak Alemania komunisteari gatzik erantsi\* ez deion edo, orma luze bat jaso dabe Alemania bien artean.

«Kennedy ezin eiteken Berlingoa izan: ez eban garagardao\* zuririk edaten», esan eustan Berlindar batek. Berlindar au, Alemania komunistatik iges egindako bat zan. Bere aideak\*, beste aldean geratu zirean.

Beste asko be, beste aldean geratu dira. Tiro batek komentzidu ditu, Alemania federala baiño ohea dala komunistea. Eta niri ez deust bapere ardura, ori egia dan ala ez. Arrazoi sendotxua iruditzen jat, alan be.

**Pater noster bat  
errezzatu behar dut,  
Berlineko muraila  
iragaltean\*,  
hiltzen diren  
pederasta eta lapur eta eraile\*  
eta nazi guztiengatik.**

Idatzi eban Gabriel Arestik. Ez dakit, ironiaz edo zelan.

Ildakoak zer zirean ez dakit nik. Ormea igaro dauan ainbat jente, olakorik ez dana, bai! ba dakit. Eta iges egin gura leu-keen danak olakoak badira, ez dakit zegaitik dagoan ainbeste gudari armatu, torreta ta mina ezkutu, muga demoniño ori zainduten. Ez dakit, mugearen ondoko la-reun metrotan, etxeak be zegaitik apurtu dabezan. Eta leio danak adrilluz itxi. Olako jenteak Alemania federalari kalterik egin ez deion-edo izango da, nonbaitebe!

Nik auxe esan neike: lan egiteko eda-dean dagozanak, ez dauke Alemania federalera etortterik. Ezta aita edo ama ikus-teko be. Ezetarako be ez. Eta nonok etorri bearra badauko (osagilleak eta ola-koak), ezin leiteke emazteagaz etorri: bietariko batek beste aldean geratu bear dau. Eta Alemania komunistan bizi direanak eurak be, baimen berezi\* bat bear dabe, Berlin komunistara etorteko.

Lan egin ezin dabena barriz (gaixoak eta zaarrak), gura dabenean etorri leite-kez. Asko datoz etorri be; eta orreeri Ale-mania federalak, zaartzaro errentea or-daindu bear deutse. Egunero ikusten dot nik au. Izan be, Münster'eko zaar etxe baten emoten dot mezea. Eta... Rusiatik bertatik Alemania federaleraiño bapere

neke barik iges egindako irurogetamar urteko aguretxu bi dagoz bertan. «Errez egiten jake batzuri iges egitea», pentsetan neban nik lenengotan.

Joan nintzan egun baten, Gaubeka osagilleak lan egiten dauan hospitalera; eta nire laguna, bermeotarra bera, 18 urteko neska bategaz egoan. Arteriogriposis gatzak jota egoan gizaixoa: ezin zirkiñik egin ezta ikusi be ez; elbarria\* ta itsua zan. Poloniatik «iges eginda» etorri zan

alandaguztibe. Kontxo! Ta orduantxe uler-tu neban eskapetako erreztasun dalako orren misterioa. Izan be, iges egitea guztiz erreza da, zaarra edo neskato orren antze-koa izan ezker: artu eban poliziak, eroan eban trenera eta trenak Alemania federa-lean itxi eban. Ez gurasorik, ez lagunik, ez ezer.

Olakoak be ikusi bear! Eta oraindiño, asko falta jaku dana ikusteko.

JOSE AZURMENDI, Münster

## KEZKAK

### "ZENBAT KORREJIDU BEAR DAUAN IDAZLEAK..."

Gauza berezi\* ta nabarmena ger-tatzen da gure artean. Eta «Zeruko Argia»n bertan dogu gertaera orren agerpiderik jatorrenetarikoa. Euskeraz idaztea, antza danez, guztiz erreza da. Ainbestek idazten dogu. Edonok idaz-ten dogu zerbait. Nok daki zenbat di-rean, «Zeruko Argia»n idazten dabe-nak?

Erderazko egunkarietan\* ez dira izango ain ugari, nire ustez. Gaiñera, erderaz idazten dabena, jente ikasiak direalakoan nago, orretatik bizi direa-nak, orretarako dagozanak.

Besterik da gure artekoa. Inor be ez, euskeraz idaztetik bizi danik. Alan-daguztibe, edonok idazten dau euske-raz. Zoriona makala! Izanbe, ez da poztutetkoa, gure errian ainbestek ida-tzi aal izatea? Bai orixe! Gure erria aurreratu xamarra dagoan ezaugarritzat daukat nik ori.

Egia. Erri baten, idazteko kapaz di-reanak zenbat eta ugariago, ainbat eta aurreratuago ta ikasiago izango da erri ori. Baiña idazten dogun guztiok, beste barik, idazle gareala uste ete lei-teke? Ba dirudi, alantxe uste dogula.

Artetxe jaunari artu deusadaz idaz-buruko\* berbak. Osorik esango deu-tsuet arek idatzitakoa. «Eltzo'ren kua-dernuetan ikasi neban nik zer zan idaz-tea, eta zelako lanak dituan idazteak, eta zenbat korrejidu bear dauan idaz-leak» (ZERUKO ARGIA, 182).

Alantxe da. Zuzendu bear asko iza-ten dau, izanbe, argi eta garbi idatzi

gura dauanak. Kendu eta jarri. Eskuz eta makiñaz zirriborro asko egin bear izan dituanak daki, zer dan lan ori. Eta ze mesedegarri dan. Alandaguzti-be, ba dirudi, ez dagoala zuzendu bea-rrik bapere, euskeraz idaztekoan.

Ori ta geiago ikusi leiteke «Zeruko Argia»ko idazlan askotan. Eta ori, Z ta S noiz-nongo barik naastuten ditue-nak kontuan euki barik. Eta oraindiño baltzagoa da, aditzagaz\* egiten dabena naastea. Nik artzen ditudan «Zeruko Argia»ren aleetan\*, olakorik asko aur-kitu leiteke.

Noiz artuko ete dogu danok astia, gure idazkerea txukundu eta argitze-ko?

Azkenik, Euskaltzaindiaren illeroko erabagiak emoten dituenak, noiz asiko ete dira? Zelan esango dogu? Noiz asiko ete dira kontuan artzen, Euskal-tzaindiari zerbitzu kaxkarra egiten deu-tsoela, ospe exkaxa emoten deutsoela, argiago idazten ez dabena bitartean? Noiz konturatuko ete dira, euskal al-karte nagusi ori oso gitxi goratzen da-bela, euskera euskeraz idazten ez da-bena bitartean?

«...zenbat korrejidu bear dauan idazleak!»

GAZTAÑAGA

(ZERUKO ARGIA  
aldizkaritik bizkaieraztua)

# ARABAKO EUSKAL ABESTIAK DIREALA TA

Euskal Erriak daukan lurralderik erdaldunduena dogu Araba. Egia da. Bazter gitxi dago Araban erdaldundu bakorik, tamalez\*.

Baiña euskerea ez da guztiz il bertan. Izan be, Arabak euskaldun dirau\* toki estu mear-txo\* batzuetan beintzat; eta ipuin zaar eta kantu, euskaltasunaren ezaugarri ederrik emon deusku.

«Arabako euskal abestiak»: titulu onekin irakurri genduan, orain iru-lau illabete, artikuluxo bat, Munduateren izenpean egiña. Gazteizko aldizkari baten aitatu zan gai\* au leenixoago; eta artikulugaz batera, euskal kanta bi agertzen zirean. Eta euron otsa\*, Munduate orrek zabalduta, Estibalzko aldizkarira eldu zan; eta andik, Donostiko «Zeruko Argia» ezagunaren orrietara.

Zorionean etorren Munduaterentzat, Arabako euskal abesti orrekin barri zabaltzea. Kanta ain ederrak eta biotzari eragitekoak! Zegaitik geiago billatu ez, eta guztiekin txorta eder bat egin?

Ni Munduateren eritxi orrekin bat nator; eta bere guraria, ontzat eta aintzat artzekoa dala uste dot. Eta emen naiz, gai\* onetan argitasun batzuk emon gurarik, berak esanaren geigarri eta alde.

Ezin ukatu, Munduatek aitatu dituan kantu orrekin edertasuna. Politak dira bertsoz, eta entzungarriak soñuz. Ona emen bertsoen puska batzuk:

Txikitxu polit ori,  
zeu ene laztana,  
kateatu ninduzun  
librea nintzana.

Begira nago begira  
or goiko bide barrira,  
noiz etorriko ete dan  
maitea neure errira.

Begitu deiogun leenengo laukote orri. Polita izanez gaiñera, gure artean bertsoz zaarretakoa dogu, gizaldietako urrunetan sartzen gaituana. Gitxienez, Lope de Vega idazle ospetsuaren egunetaraño, orain dala irurendik gora urte. Zaarragorik be ba dogu, egia esan. Baiña gure egunotan oraindiño bizi danik gitxi, nire ustez.

Lope de Vega orrek, ain zuzen be, onako bertso oneik sartu zituan bere teatrolan baten:

Zure begi ederrok,  
ene laztana,  
katibaturik nabe  
librea nintzana.

Nok ez dau ikusiko, or goian aitaturako bertsoen iturria ta otsa\*? Eta Lope de Vegak entzun eta jaso zituaneko, zenbat urte eukazan kanta orrek? Eta arabarren baten agotik ez ete zituan jaso ta ikasi?

Eta bigarren laukote ori? Maitearen zain, noiz agertuko luze critxirik dagoan baten intziritxo\* ori be ez da, ez, atzo goizekoa; ta zelango jasotasuna\* ta samin giroa\* darion\*! Tamal\* andia, ain laburra izatea. Poema an-

diagoren baten puska bat da, aurki\*. Eta beste puskek be, bizi ditu nonbait oraindiño. Neuk entzun neban bein Bizkaiko baserritar bat bertso orreik kantatzen, dantza soñu battegaz, beste bertso batzuek az naaste. Trenean zan, Bilbaotik Orduñara bidean. Miraballe sen edo Arrankudiagan sartu zan bera; ta sartu zaneko, kanta ta kanta ekin eutsan. FERIA batera joian beste lagun batzuekin. Amurrio baiño leen jatsi zan trenetik. Ba joiala ta, beragana urreratu nintzan, ea nongoa zan eta nondik ekizan kanta areik. Baiña ezezagun baten jakingureaz lotsatuta, trenak ez eutsan itxi bere lotsa orretatik urtetako astirik, eta erantzunik barik itxi ninduan. Iñok or Arrankudiaga ta Arrigorriaga bitartean olango kantarik jaso nai baleu, bego jakitun, bazter orreitan ba dala oraindiño olango kanta zaarrik dakianik.

Beste zertxobait be esan bearrean nago. Arabako kanta zaar orreik aspalditxotik ona ezagunak zireala gogora ekarri bear dot. Ba dirudi, Munduatek-eta oraintsu jasotakotzat, aurkitu barrizat daukezala. Baiña orain 50 urte Azkue zanak argitaratuak dira, bere kantutegi andian emonak. Ta ez kantu biok bakarrik. Beste 25 inguru ba dira an Arabakoak. Ia txorta bat egiteko aiña\*, neke andirik artu barik. An dagoz, bai, bizi bizirik abesti biok: bata Olaetan artua, Engrazia Lazkanori entzunda; eta bestea, Maria Arraiz'ek Legutianon\* emona. Andra biok, beste amabost inguru abesti emon eutsoezan Azkue jaunari. Eta kantuok batzen, ez dau iñok nekerik artu bearrik. Kantu orrekin osagarriak, geigarriak batu: beste zeregiñik ez daukagu emen.

Arira datorrela uste dot uskeriok gogortzea, Azkue zanaren kantutegi ori oraintxe barrira ateraten dan ezkerok. Or ditugu ainbat pitxi eder. Ez al doguz ain arin aaztuko. Or dabe arabarrak be, euren leengo euskalduntasunaren barri ain argi emoten deuten ainbat lorratz\* eta aztarren\*. Batezbe Armaiona ta Legutiano\* aldea, ipuin eta kanta zaarretan, pitxitagirik ugarietakoa dogu Euskal Erri osoan. Baiña aaztu egiten baditugu, edo aintzat artu ez, kitto, alperrekoak izango dira folklore zaleen aalegin guztiak.

Orixe jazo dala dirudi Arabako kantu bi orreikaz. Oraintsu Mari Lurdes Iriondok diskoz atera dauan «Linpan Mendian» abesti ain gozoa be, zenbatak ete dakie Azkue zanaren kantutegiko bat dala, eta Arabako mugatik urrun bakoa?

Euskaldunok aazkorrek gareana naiko argi dago. Aazkorrek, edo ikasina gitxikoak. Ona erakutsi bat. Oraintsutan aurkitu dabe aintxiña bateko Oihenart zaararen esku idatzi bat, manuskritu bat, orain irureun urtekoa. Eta bertan, euskerazko bertso batzuk; eta euren artean, moro errira aitak saldu eban batenak. Eta ez deuskue esan, ba, ezezagunak eta egundo argitaratu bakoak zireala? Eta gure literatura urrian ezin izan, ezagunago izan bear ebenik! Ezaguna zan kantu ori, Humboldt zaararen egunetatik ona. Eta geiago dana, oraindiño bizi be bizi da gure errian. Or dogu Azkue bere kantutegian sartuta, Naparroako Etxalar errian jaso eban lez.

Antxe dago, bere zaartasunari jagokozan\* barri ta zertzelada\* guztiekin.

Esan dodanez, Azkue zanaren kantutegi ori barrira emoten deuskue argitara. Tomo andi bitan. Bigarrenak, geigarri batzuk eroango ei ditu. Ez dakit nondik nora joko daben geigarri orrekin egilleak. Gizon azkarrak\* ei dira, ta euren arloan adituak be bai. Argitasun jakingarririk emongo al deuskue. Baiña Azkueren lanak berak, kantutegiak berak bali andi goa izango dauala esan bearrik ez dago. Askoren eskuetara elduko al da. Eta ez al dogu ain laster aaztuko oraingoan. Batez be arabarrak, ondo egingo dabe liburu ori arakatu eta andik euren kantu zaarrik ikasi eta eurekin mordo bat egin eta aterateaz.

Gure folkloreak edertasunak batu ta zabaltzen lan egin dabenak, esker ohea merezi dabe. Eta euskal musikearen arloan zabarreki\* jokatzeko dogula-ta nago. Non dogu gure musikearen gordeleku edo artxiborik? Musikalari bakotzak, bere artxiboa izango dau. Gero, ilten direanean, or sakabanatuko dira an batu ebezan txorta guztiak. Gitxi batzuk artu dabe, Euskal Erriari mordo andirik eskintzeko nekerik. Or ditugu Iztueta, Santesteban, Salaberri, Etxebarria-Gimon, Donosti, Azkue. Ea noiz ateraten\* direan beste batzuk, beti bakarka ibilli edo pitinka lan egitetik. Arabar baten izena aitatu bear neban emen: Urruñuela jauna, Arabako soñuak batzen lan andia egin ebana. Baiña non da aren lan ori?

Salaberri zaarra izentatu dot. Salaberri barri bat be, ba da oraintxe Gazteizen. Arabako semea da bera, euskalduna ta musikalaria gaiñera. Berak eta bere lagunak alkar arturik egingo al dabe Munduatek eskatu dauana: Arabako euskal kantutegi aalik eta osocna batu ta atera.

## GEIGARRIA

Gauzatxo bi ditut geigarritzat esateko. Leenengo ta bein, oraiñarte emen esana, «Zeruko Argia»n Munduateren lana agertu zanean egindako artikulua batekoa dala, orain iru illabete ta erdikoa. Aldizkari orretara bialdu neban; baiña ez eusten aintzat artu, dirudiane.

Bigarrena, ia siñistu be ezin dodan beste zertxo bat. Bilbaoko FERIA de Muestras dalakoan izan naiz. Eta an ikusi dot Azkue andiaren kantutegia salgai, barrira aterata, leen esan dodanez. Saltzaillearekin berbaz asi naiz. Eta esan deustanak, siñistu eziñik itxi nau. Asko urreratzen ei dira liburu orren aurrera; eskuetan artu be egiten ei dabe. Itxura baten, eder erixten ei deutsoe. Baiña Azkue izenak uxatzen ei ditu. Azkuerena dala entzun orduko, atzera egiten ei dabe. Eta neure artean esan dot: Ori egia bada, gure erria alfabetatu bearrez su ta kee diarduen askok, ba ete dakie nortzuk dauken alfabetatu bearrik geien?

BASABIL

## GURE GAZTEAK ZEGAITIK EUSKAL ERRITIK IGESI?

Mundua mundu danetik, gizon geienen ardurarik aundiena izan da, nondik lortu eguneroko ogia. Orain be, aolantxe da munduko toki askotan. Baiña Europako eta Ipar Amerikako leku aberatsetan, goseterik ez da izan geiago azken eun urte oneetan. Janaria seguru eukita gero, gizonak zerbait geiago nai dau. Tresneri esker, industria zabaltzen ari\* da. Base-rrian langille gitxiagogaz, ondo; urian, geiago bear. Baiña ezinbiziak —orain bear dan moduko ezinbiziak— labrantzatik kanpora lagun asko botetan ditu.

## MENDIA

Ez gara, batzuk uste daben errialde atzeratu eta pobrea. Alandabe, autortu egin bear dogu ze menditsu dan Euskal Erriko parterik aundiena. Labrantzearentzat, zelako trabak eta eragozpenak toki askotan! Ez da beraz\* arritzeko, Zuberoan Atarratzeko kantonamentuak\* sekulu baten bere populaziño erdia galdu badau. Igazko lur ikareak, ez dau an bizia erreztu. Egun oneetan gaiñera, arria egin dau gogor. Ez euken beste bearrizanik!

Donibane Garazin eta Baigorri be, zeregiña naikoa dauke askok euren erripakaz\*. Batzuri «mugako komertzioak» pixka bat laguntzen deutse, zerbait geiago irabazteko. Baiña euskaldunen arteko muga orrek ba ete dauko fundamenturik, Merkatu Komunaren sasoi onetan?

Sarritan aitatuten dira Euskal Erriko zelaiak. Nik neuk, lur zelai gitxi ikusten dot, bai ipar aldeko, bai ego aldeko Euskal Errian.

## GAZTEAK IXILIK

Gazteeri palagu gozoak eta leunketa ez-titsuak egitea, modan jarri da edonon. Baiña gazteeri euren bizitzan egiazko lekua egitea, ori beste gauza bat da.

Oraiñarte, Euskal Errian, berrogetamar urterik beerako gizona naiz emakumea, umekondo bat zan. Etxeetan, gero ta kasu geiago egiten jake gazteeri, batez bere tresna barriak sartu direanetik ona. Baiña errian, ara-onako zeretan, bide luzea dago oraindiño egiteko. Toki batzuetan, gazte-tariko garau bapere ez da sartu aiuntamentuetan. Beste toki batzuetan, edadekoen artean gazte banaka batzuk artu ditue; baiña zetarako? Larregi berba egiten ebeneri, agoa itxi erazoteko? Ala, eurakaz barrizkuntza apur bat egiteko?

Gauzak ikusten ditudan lez ikusita, norbaitek kontrarioa probatu arte, ni neu one-

tan nago: ipar aldeko Euskal Erria gero ta geiago edadeko jentearena dala. Gazteak iges egiten dabe, eta alde batetik arrazoiak dauke. Tokian dagozanak, norbait direanak, ondo bizi direanak, gauzak dagozan lez kontserbatu gura ditue. Gazteria, dana ei da zalaparta ta desordenua: doala ba ortik zear, Frantziara naiz Ameriketara! Olan, gure iru probintziak urrungo aberatseri saltzen deutsee gure gazteria.

## ERLEJIÑO, GIZONEN LOBEDARRA ALA LIBRATZAILLEA?

Gure alderdi onetan, askok uste dabe, erlejiñoa bera ordenuaren aldeko polizia edo jagole espiritual bat lakoxea dala. Beti obediencia, agintariakanako errespetua ta begirunea, eta, bistan dagoana, zorioneko seigarren mandamentua. Baiña beste be-deratziak ez ete dira kontuan euki bear?

Eta libertadea, gizonaren eskubideak, mundu oba bat egiteko obligaziñoa?

Gazte batek oraintsu aldizkari onetan idazten eban lez, ikusi egin bear litzake, erlejiñoak zer izan bear dauan, «gizonen lobedarra\* ala libratzaillea».

Euskal Erritik joanda, gazte askok eleizarako bidea ixten dabela ta, gure eleizagintariak fenomenu orren arrazoiak billatzen ari\* dira. Batzuk, euskereari errua. Niretzat, gauza bat dago argi: gazte orrek, erlejiñoa gizonen libratzaillea dala ikusiko balebe, ez leukee, galerianoak\* euren kateak lez, erlejiñoa bazterrera botako, gure bistatik urruntzen direaneko.

J. L. DAVANT

(Baionako HERRIA aldizkaritik bizkaieraztua)

HENDAIKO LANTEGI AU LAKORIK  
GITXI MUNDUAN

Ejenplu bat dozu Hendaian, zelan emon leitekion jenteari lana, tokiko aberastasunak aprobetxatuz. Ejenplu ori, Ithurralde jaunaren lantegia da.

Ithurralde jaunak, itxasorbela\* landuten dau bere lantokian. Orbel ori itxasoak jaurtigiten dau, eta bagilletik\* iraillerarte\* batzen da. Edo itxas hondotik ataraten da, langille murgilkari-ri\* esker.

Batuta gero, orbela kanpoan legortzen dabe, bedarra lez. Urren, lantokian tratatzen dabe. Itxas orbek emoten dituan emoitzak, gauza askotarako balio dabe: janariak kontserbetako, medikamentuak egiteko, edariak argitzeko, oialak-eta egiteko. Leku batzuetan, Japonen esate baterako, jan egiten dabe itxas orbela, bear dan moduan atonduta gero.

Europako naziñoen artean, Espaiñian

eta Euskal Errian bakarrik tratatzen da orbela. Hendaian tratetan dana, onen-tarikoa da.

Hendaia ta Donibane artean batzen da.

Orbelari esker, lareun langillek irabazten dabe emen eguneroko ogia, batzen dabenak eta lantegian bear egiten dabenak kontatuta. Ez da gitxi. Igaz, bosteun tonelada tratatu zituan lantegi orrek. Orbelaren emoitzak, saltze guztiz ona dauke.

Geroari begira, Ithurralde jaunak erein gura leuke itxasoan orbela, eta bertan landu, edozein landara lez. Olantxe egiten dabe Japonen.

Orra or zelan, gizon erne ta bizkor batzueri esker, ementxe bertan sortu leiteken, danok ainbeste eskatzen dogun lana.

# Japones berbeta

Urte osoa joan da, Tokyoko ikastaldiak amaitu nituanetik. Ikastolako azken egunean, paper aundiak emon eustezan. Ez nengoan ni asarre egun aretan. Baiña ango arloa amairuta gero be, amaika buruaste ta buruko min emon deust berbeta orrek. «Japones berbeta, deabruaren berbeta», esan dau baten batek. Nik ez diñot, deabruaren berbeta danik; baiña aingeruen berbeta danik be ez. Gatxa, guztiz gatxa dala esaten badeutsuet, ez deutsuet guzur aundirik esango. Egunaro ordu berezi\* bat emonda be, ba dago oraindiño «bermeo bedarra» egaletan. Japonera etorri aurretik be, ango ta emengo berbetak ikasten, garaunak astindu bear izan nebazan; baiña orainarte, japones berbeta lakorik ez dot aurkitu.

## TXINA ALDETIK ETORRITAKO KULTUREA

Sortaldeko\* errietan Txinak euki dauan ospea eta itzala —eta oraintxe bertan be, ba dauka gero!— ikusi barik ezin leiteke siñistu. Eskoba gaiñean erririk erri ibilli dan «Anbotoko Seiñorea» dala esaten badeutsuet, ez dot geiegikeriarik esango. Kultura kontuan batez be, bai Korean eta bai Japonen, Txinak zerikusi aundia euki dau. Japonen batez be, Mao anaiearen lurra inportantzia aundia dauka.

Txinatik Japonera etorritako kultura ori ez da artez\* etorri, Korearen bitartez baiño.

Kultura ori Japon aldera ekarri ebenak, Budismuaren bontzoak izan zirean. Budismu eta Sintoismuaz urrengoan zerbait esateko asmoa dot, eta gaur «kanji» idazkerearen gaiñean berba egin gura neuskizue.

## «KANJI» IDAZKEREA

Txina aldeko kultura etorri aurretik, japonesak ba euken euren idazkerea, euren eskribitzeko modua. Bere izena, «giragana». Baiña japonesak, Txina aldetik etorritako «kanji» ikusita, lotsaturik, euren «giragana» ori apur bat baztertu, eta «kanji» artu eben. Obeto esateko, euren «giragana» ez eben bertanbera itxi, ez orixe! Orduko japonesak be, gaurko japonen senide izan, itxurea: naaste borraستهaren adiskide aundiak. «Giragana» ori ez da gatxa. Baiña «kanji» bai, gatxa da benetan. Bere gaxtasuna nondik datorren esango deutsuet.

«Kanji» bakotxa —eta ez uste bi edo iru direanik, 1850 dira orain erabilten direanak, eta aintxiña amar millatik gora ei zirean— iru edo lau modutara irakurri leiteke. Esate baterako, orain «shin» irakurten doguna, urrengoan «atarashii» edo «arata» irakurri barko ete dogun ez dakigu. Idazteko orduan, beti dogu bardiña; baiña zelan irakurri? Or dago eztula. Berbeta kontuan, ez dago aparteko konplikaziñorik; baiña iraku-

rri eta idazteko orduan, bai. Txinoen berbetan, bestetara ei dira gauzak: alkarregandik urrun bizi direan txinoak, berbetan ez ei dabe alkar adituten; baiña izkera\* idatziaren bidez, bai. Ori dala ta, paperaren eta lumearen bidez konpontzen dira alkarren artean. Alde batetik, txinoak bentaja aundiak daukaz; baiña bestetik, ez ainbeste.

## «KANJIREN» ALDERDI ONA

Baiña ez da negar larregirik egin bear. «Kanji» orrek ba daukaz bere gauza onak. Onako bi oneek batez be:

Japones berbeta —eta txinoa be bardin— belarrikoa baiño geiago, begikoa dala esan geinke. Ikusiz adituten dan berbeta. Au dala ta, trenetan, automobilletan eta abar, amaikatxu bidar ikusi ditut, papera ta lapiza eskuan daroezala.

Esate baterako, japonesak «mendia» esaten badau (irakurten badau batez be), mendiaren irudia bera jatorko burura; edo mendia bera ikusiko dau, mendia idazteko erabilten dan «kanji» orretan. «Kanji» orrek mendiaren irudia berbera emoten deutso japonesari. Orra or, «kanjik» daroan alde on eta edertasuna. Erromaniku alfabetuak ez deusku irudirik emoten, gaia baiño; «kanjik» bai, ederto baten emon be! Alde onetatik begiratuta, «kanji» ori galduko balitz, japonesak asko galduko leuke.

Bigarren alde ona: sarri askotan, «kanji» ori praktikua be ba dogu. Japones berbetaek, pronuntziaziño bardiñeko berbak asko be asko daukoz. «Kanji» ori ez balego, ez gintzakez ain errez alkarren artean adituko. Esate baterako, erderaz «pluma» (de ave) eta «pluma» (de escribir), gauza bera izan ezarren, pronuntziaziño bardiña ta idazkera bardiña dauke. Japonesak, kasu orretan, «kanji» diferentea erabilten dau; eta olan, ez dago oker aditzerik. Neuk be, atzerritarra izanarren, erromano alfabetua edo «giragana» bera baiño be, «kanji» ori naiago izaten dot. Obetoago aditzen dot.

## EUSKERA ETA JAPONESA, SENIDEAK?

Onezaz be, berba erditxu bat esan barik ez zindukeedaz itxi gura.

Izan ditu Japonek euskal misiolari jatorrak: San Frantzisko Xabierkoa, San Martin Agirre Ibarrangelukoa, eta abar.

Oraindik urte asko ez dala, izan zan emen beste euskal misiolari bikain bat: Candeau abadea. Frantzia aldeko euskalduna zan. Japonesak eurak diñoenez, misiolari jator onen japonesa, sarri askotan, japonen japonesa bera baiño be japonesagoa ei zan. Eta misiolari onek dirauskunez\*, japones berbetaek eta euskereak antz aundia dauke alkarren artean.

Dana dala, neure esperientzia txatxar oneri

eta neugaz emen bear egiten daben euskal misiolarien esperientziari jaramon egiten badeutsat, auxe esan bear: Japonesak eta euskereak, ba dauke bai alkarren antza; bearbada, uste dogun baiño geiago. Ona emen ejenplu txatxar bat: Tokyoko ikastolan egon nintzan denporan, bai amerikanoak, bai italiakoak eta bai erdaldunak, danok batera ikasten genduan gramatika. Egun baten, erderazko «que» relatibu ori ikasi bearra izan genduan. Bai amerikanoentzat eta bai erdaldunentzat be, a zan buruko miña! Ezin asmatu. Esate baterako: «El hombre que viene, es mi padre», ezin eben japonesera aldatu. Niretzat ez zan ain gatxa izan. Zegaitik? Euskeran lez japonesean be, relatibu ori aditzagaz\* batera doalako. Japones ikasten daben erdaldunak, ba dauke beste soster\* asko be: esate baterako, pronuntziaziñoan.

## AZKENA

Japones berbetari buruz esan deutsuedana berba bitan bilduko baneu, ona emen ondorea\*.

Japones berbeta, gatxa da; baiña ez, ikasi ezifekoa, euskaldunentzat atan\* be. Berba egitean, ez da ain gatxa. Idaztean eta irakurtean dira kontuak. «Giragana» eta 1.850 «kanji» —eta «kanji» bakotxak iru edo lau irakurpen modu ditu—, ori danori kontuan artzen badogu, japones berbeta akerraren gauerdiko eztula baiño zeredozer geiago dala konturatuko zaree.

XABIER IDOYAGA

(ARANTZAZU aldizkaritik artua)

## FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan

MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale

Zerra — Uruga

Uraska

Europako aurrerapenik onenak emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)



# Ipar Amerikako monjak

Nortamerikako monjak, ez dira Europa-koak lakoak. Angoak ez dira bizi, emengoak lez, euren komentuetako bakartade ta soseguan. Kalera urtetan dabe, eta uri-bazterretako pobreakana joaten dira. Monja izatea itxi barik, gizarteko eskubide guztiak euki gura ditue, beste erritar-rrak lez. Orañarte ezagutu dogun monja irudia, bazterrera bota dabe; eta, New Yorkeko «Newsweek» astekariak\* diñoanez, «alaitasuneko erreboluziño» bat sor-tu erazo dabe.

New Yorkeko Harlem aldaurian\*, kita-rra ta guzti kalera urtetan dabe; eta au-zoko ume baltz traskilleri\*, kanta politik abestuten deutseez.

Detroiten, Santo Domingoren Ordenako monja batek, kooperatiba denda bat ede-gi dau auzoko andra baltzentzat, eta kon-petentzia itzala egiten deutso bertako mer-kataritzeari\*.

Oregoneko Portland urian, iru monja Frantziskotar, portu aldeko apartamentu pobre baten bizi dira, leenengo sokorruak emoten ditue, eta bazterretako ume kox-korren ardurea daroe.

Iowako Davemport urian, ango Obis-poak monja batzorde\* bat izentatu dau, eskola ta bizitoki kontuan eta gizarteko beste zeregiñetan berari laguntzeko.

Californiako Unibersidadeetan, parte ar-tzen dabe monjak ikasleen eztabaidetan, eta Vietnameko guduaren kontrako pro-testetan.

New Yorketik San Franciscoraiño, edo-non aurkitzen dira monjak, modernuki jantziak, Estaduko eskoletan irakasten,

zeregin sozialetan laguntzen, hospitaletan gaixoak zaintzen.

Ipar Amerikako 180.000 inguru monjak, ez dabe iges egin gura bizitza publikutik. Bertan bizi nai dabe, monja izatea laga barik. Ez dabe geiago onartzen, Eleizea-ren bizitzan leenengo tokia gizonezkoak euki daien. Eta euren asmoetan aurrera joateko, Vatikanoko Bigarren Kontzilioa-ren erabagietan artzen dabe indarra ta adorea.

Ori bai! Onartu ta egin egiten ditue oi-turazko iru botuak: pobretasuna, kastida-dea ta obediencia; baiña, New Orleansko monja batek esan eban lez: «Obediencia botua egiten dauanak, ez dau orre-gaitik bere nortasuna ukatuten».

Naturaltasun osoagaz aitatu ta defendi-tzen ditue euren eskubideak; eta ausartu\* be egiten dira, obispaduko kuriaren joka-bidea kritikatzan eta bere aginduak bidez-koak ete direan aztertzen.

«Erroman dagozan gizonezko batzuk ze-lan epaitu\* leikee, emakume amerikano batek egin leikena edo ezin leikena!» Auxe esan dau Chicagon oraintsu, ango kolejio bateko monja nagusi batek.

Habitu kontuan, esate baterako, monja kongregaziño batzuk, Erromako erabagia-ri itxaroten egon barik, eurak euretara asi

dira, beste jantzi egokiago batzuk erabil-ten.

Nortamerikan, European baiño askoz geiago, erriko eskoletan irakasten dabe monjak, beste maistrak lez. Eta leku ba-tzuetan, ain metodu barriak eta aurrera-tuak erabilten asi dira, obispoeri eureri be bildurra ta artegatasuna\* sartu deu-tsee.

Ori dala ta, orain sei illabete edo, Cali-forniako Los Angelesen, eztabaida gogo-rrak euki izan ditue ango 43 monjak eu-ren artzobispoagaz; eta auzia, zelan edo alan Erromako eleizagintariak ebatzi bear izan eben.

Ipar Amerikako monja «erreboluziona-riok», errezago edegi leikeez bide barriak, Europako monjak baiño. Emengoak, mi-llaz\* urteko tradiziño luze bat daroe eu-ren bizimoduaren gaiñean. Angoak barriz, libre dagoz pixu orretatik.

Nortamerikako monjak, euren erriko eginkizun aundiak ikusten ditue. Eginki-zun aundiak eta ugariak. Eta mundu one-tako zeregiñetan bete betean jardun gura dabe, bide ertzean eskuak batuta egon ba-rik.

Guk europatarrok esan geinkena, auxe da: Duda barik, Ipar Amerikako monjak zeregin aundi bat egiten ari\* dira euren errian; eta amerikano geienak, onartu eta estimatu egiten dabe monjen jokabide ori.

**«ERRIEN AURRERAKUNTZA»**  
**“Populorum Progressio”**

Dokumentu ain garrantzitsua euskeraz irakurri gura dabenak, Bilbaoko liburutegi oneetan erosi leikee 10 pesetan:

Librería Balmes,  
 José F. Lequerica, 5

Librería Bilbaína,  
 Plaza de los Mártires, 2

Librería Ercilla,  
 Ercilla, 29

Librería Izarra,  
 Gregorio de la Revilla, 23

Librería Verdes-Achirica,  
 Correo, 7

**ANAITASUNA**

Amabosteroko aldizkaria

SUSKRIZIÑO TXANTELA

IZEN ETA APELLIDUA .....

KALEAREN IZENA ETA ETXEAREN NUMERUA .....

BASERRIA .....

AUZOA .....

ERRIA .....

PREZIOA

Urte onen azkenerarte ... .. 30 peseta

Datorren urtearen azkenerarte ... .. 105 peseta

---

IDATZI LETRA ARGIAZ, ETA BIALDU TXANTEL AU  
 ZUZENBIDE ONETARA:  
**ANAITASUNA**  
 Torre, 3, 1.º — BILBAO - 5

# XABIER LETEREN LENENGO DISKOA

Urte asko, geiegi, igaro izan dira, euskeraz abestutako diskorik argitaratu barik; baiña azken illabete oneitan pilloka urtetan asi dira, zorionez.

Zabaldu da Xabier Leteren lenengo diskoa.

Denpora asko ez dala, bere azken liburua-ren barri emon genduan aldizkari onetan. Liburu au zabaltzen dabillen bategaz itz egin dot, eta naiko ondo saltzen dala esan deust.

Zoritxarrez, gure artean ez da liburu askorik irakurten, eta gixiago euskerazkoak bada. Leteren liburu au, liburutegietan baiña geiago, berak abestuten dauan jaialdietan saltzen dala esan deuste.

Eta zelakoa da Leteren disko barri au?

Danok ezagututen dozue Lete, Bizkaian asko abestu dau ta. Orregaitik, abeslari dan aldetik ez dot bera laudatuko\*. Egia esateko, nik sarri ipinten dot etxean disko au; eta naizta ondo abestuta egon, niri geien atsegin jatana, bere poesiaren sakontasuna da, eta euskerearen pronuntziaziño parebakoa.

Lau abesti polit dakaz diskoak, eta eurretari baten itzak ipiñiko deusuedaz emen, niri geien atsegin jatazanak. Abestiaren titulua, «Lore Gorrien Balada»; eta doiñua, «Agate Deuna» abesti ezagunarena.



Aurreratuta daukozun dirua gordeteko  
BIZKAIKO AHORRU KAJA  
dozu onena

Etxe nagusia: Pl. España — BILBAO  
Tel. 243600.  
15 sukursal Bilbaon

65 sukursal Bizkaiko erri nagusietan  
Madrilleko Etxea: I. C. C. A., Alcalá, 27  
Tel. 2214995

BIZKAIKO AHORRU KAJEAK  
Bilbaon eta Probintzia osoan lanik zabalena egiten dau benefizentzia ta gizarte saillean, eta laguntzarik probetxugarriena emoten dau osasun kontuan.

## LORE GORRIEN BALADA

Zelai ertzeko lore gorriak  
neguak zapuztu\* ditu.  
Neskatxaren ezpain\* eriak\*  
zeiñek laztanduko ditu?  
Gure herriko baratzak\* dira  
lorerik gabe gelditu.

Udaberriko lili garbia,  
gure lurrean eldua,  
gaueko amets bat bezela\*  
egunsentian\* galdua,  
gizon dirudun baten etxean  
ain gazterik usteldua.

Loreak zeñek jarri zituen  
elizako aldaretan,  
nagusiak ekarritako  
zillarrezko\* ontzietan?  
Orain larrosik ez dut ikusten  
Euskalerriko kaletan.

Diskoaren argitaratzaileak, Donostiko «Hegosa»koak dira; eta disko onegaz asi dira euren lanean.

Zorionak, bai Lete eta bai «Hegosa»ri. Exitu onek bultza daizala aurreruntz euren lanean.

XABIER GERENO

## USTE IZAN

# "Esku zikiñak"

RIKARDO ARREGI

Andaluciako lurralde beroetan soldadutzea egiten ari\* nintzalarik, alako baten Sartre'ren «Esku zikiñak» izeneko liburua irakurri neban. Benetan interesgarria, liburu onetan irakurten dan teatroa. Benetan interesgarria, teatro onen gaia\*.

Idazlea beti da bildur, bere eskuak zikintzeko. Idazlearentzat esku zikintzea zera da, txarto idaztea: edo formeari buruz itxusi idaztea, edo gaiari\* buruz ekibokatuta idaztea.

Idazleak, eta gaur eguneko idazleak batez bere, ez dau eskuak zikintzeko bildurrik euki bear. Obeto esateko: bai, bildurra euki bear dau eskuak zikintzeko; baiña ezin leikio ezelan bere, bildur orren izenean idazteari itxi. Ta zoritxarrean, ain zoritxarrean gaiñera, asko ta asko dira, ori egiten dabenak.

Gatxa ei da gaur eguneko idaztea. Egia galanta da ori! Idazleak bere lanean milla tranpa aurkitzen dituala, nok ukatuko? Gatxa dala, idazteko era aproposena ta egokiena aurkitzea? Jakiña! Ta zer? Orregaitik, idazteari itxi egin bear deusuedaz? Zegaitik? Gure burua aingerutzat daukagulako, ta besteak —beste gaizto orreek— kondiziño egokiak ixten ez deuskuezalako? Kontuz eta oso kontuz aiatatu bear dira orrelako gauzak.

Euskal idazleak, gaur eguneko, izugarriko erresponzabilitadea dauka. Gure idatzietan, jenteari, Erriari lan egitea eskatzen baldin\*

badeutsagu, guk gure lanari itxi egingo al deusuedaz? Gure adiskide askok, politikagintzan sartuta dagozanak, gizarte arazoetan lanean dabiltzanak, sarritan jokutzen dabe oker, ez baita\* leenengotik bide zuzena aurkitzen. Eta orregaitik, baztertu egiten dabe euren lana? Ez. Orreen erakusbidea sakonagoa da guretzat, sintzeridade guztian egia autortzen baldin\* badogu, euren eginkizuna gurea baiña askotaz be gaxtagoa dalako, eta bearbada askotaz be atsegin gitxiago dakarrelako.

Ez gaitezan, ba, umeak lez mukertu\*. Ez, ez da erreza, mintzamolde\* egokia aurkitzea; irakurle asko zain\* dagoz, gure idatzietan guk esan gura izan doguna irakurteko: egia da; baiña ori ez daitela izan guretzat, ez idazteko arrazoia. Eta eskapa moduan ez gaitezala ibilli, funtsik\* bako arazoetaz eta gaietaz\* idazten.

Libertadeak, arriskua batez bere adierazoten dau, jokabide ona ez artzeko arriskua. Aukerarik ez badago, ez dago libertaderik; aukerea egiterakoan barriz, desegoki egiteko arriskua daukagu. Idazleok orduan, aukera bat egin bear dogu: libertadea aalmen utsean euki eta ez idatzi (ta orduan, jakiña, eskuak beti garbi eukiko doguz), edo libertadea jardunean euki (eta orduan beti kondiziño txarretan jardungo dogu, eta eskuak zikintzeko arriskuan egongo gara).

# ABERASTU ZURE EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNAREN zenbaki onetan izartxu bategaz ager-  
tzen direan itzen esangurea.

B = Bizkaia, G = Gipuzkoa, L = Lapurdi, N = Nafarroa, D = danak

ADITZ (D), *verbo*.  
AGINZORROTZ (B), *serrucho, rayado* (arraña).  
AÑA (BG), beste, *tanto como*.  
AIDE (D), senledea, *pariente*.  
ALBISTARI (B), *periodistea, kazetaria*.  
ALDAURI (B), *arrabal*.  
ALE (D), garaua, banakoa, *ejemplar de publicación*.  
ANTZAR (BG), *ganso*.  
ANTZERKI (D), *teatroa*.  
ARENBATEN (B), *ainbaten, aurki, nonbait, seguramete*.  
ARGAZKI (D), *erretreatua*.  
ARI IZAN (GLN), *jardun, zerbait egiten egon*.  
ARTEGATASUN (B), *inquietud*.  
ARTEZ (BL), *zuzena*.  
ASTEKARI (L), *asteroko periodikua*.  
ATAN. ATAN BE (B), *batez bere*.  
ATERA (G), *urten*.  
ATUNETE (B), *bonitera, costera del bonito*.  
AURKI (B), *nonbait, urrean, seguramete*.  
AUSARTU (GLN), *azartu, atrebidu*.  
AZALKERIA (B), *hipocresia*.  
AZKAR (D), *bizkorra, fisica y moralmente fuerte*.  
AZTARREN (BG), *arrastoa, lorratza*.  
BAGIL (B), *junio*.  
BAITA (GLN), *bait da, da ta*.  
BALDA (B), *alacena, estante, anaquel*.  
BALDIN (D), *Ba aurrizklari indar geiago emoteko erabiltzen da*.  
BARATZ (GLN), *ortua*.  
BATZORDE (D), *komisioa*.  
BEARKUNE (B), *deber, obligación*.  
BERAZ (GLN), *por consiguiente*.  
BEREALA (D), *beingoan, en seguida*.  
BEREZI (GLN), *apartekoa, espeziala*.  
BEREZIKI (LN), *aparteko moduan, especialmente*.  
BEZELA (GLN), *lez*.  
DARIO (BG), *erioten jako, le mana*.  
DIRAU (D), *irauten dau, duratzen dau*.  
DIRAUSKUNEZ (B), *diñuskunez*.  
EGALUZE (BG), *bonito* (arraña).  
EGUNSENTI (BGN), *egunusalña, egunsentikerea, aurora*.  
ELBARRI (D), *paralitikua*.  
EPAITU (D), *juzar*.  
ERAILE (BL), *erallia, iltzaillea, asesino*.  
ERANTSI (D), *ezarri, pegar, adherir*.  
ERETI (B), *aldi egokia, ocasión, coyuntura*.  
ERI (GLN), *galxoa*.  
ERRIPA (B), *terreno en declive*.  
ERROI (BLN), *cuervo*.  
ESI (D), *valla, cerca*.  
ETEN (D), *interrumpir*.  
EUSTORMA (B), *eusteko ormea, muro de contención*.  
EZPAIN (GLN), *ezpana*.  
FUNTS (L), *barrua, hondo, oliñarria*.  
GAI (GLN), *geia, asunto, materia, capaz*.  
GALERIANO (L), *galeote*.  
GARAGARDAO (B), *cerveza*.  
GERTAERA (GN), *jazoerea, jazo dana, suceso*.  
GIRO (GLN), *aroa, clima, ambiente*.  
GURDI (G), *burdia*.  
HILOTZ (D), *illotza, gorpua, cadáver*.  
IDAZKERA (D), *idazteko modua*.  
INTZIRI (BGL), *gemido, latido*.  
IRAGAN (LN), *igaro*.  
IRAIL (B), *septiembre*.  
ITXASORBEL (L), *alga marina*.  
IZKERA (GN), *izkuntzea*.  
JAGOKOZ (B), *dagokioz*.  
JAS (B), *garbo, esbeltez*.  
JASOTASUN (B), *esbeltez, belleza*.  
KAIALDE (D), *portualdea, portua*.  
KANTONAMENTU (L), *partido judicial*.  
LAUDATU (BLN), *goratu, alabar*.  
LEGUTIANO, *Villarreal de Alava*.  
LERRRO (D), *lnea, renglón de escritura*.  
LOBEDAR (B), *adormidera, opio*.  
LOR (B), *buruaustea, atsekabea*.  
LORO (B), *alambre muy fino*. Baldan lororik ez: *eskuetan dirurik ez*.  
Lekeitloko modismua.  
LORRATZ (BG), *arrastoa, aztarrena, vestigio, rastro*.  
LORRINDU (B), *alperrik galdu*.

MEAR (D), *medarra, estua*.  
MERKATARITZA (BG), *komertzioa*.  
MILLAZ (B), *milla ta geiago, mil y tantos*.  
MINTZAMOLDE (LN), *berba egiteko modua*.  
MINTZO IZAN (LN), *mintzatu, berba egin*.  
MUKERTASUN (BGN), *resistencia, oposición, esquivéz*.  
MUKERTU (B), *mukerrak artu, hacerse esquivo*.  
MURGILDU (BG), *must egin, zambullirse*.  
MURGILKARI (BG), *murgil egiten dauana, buceador*.  
ODEI (D), *lañoa*.  
OGETAZ (B), *ogei ta geiago, veinte y tantos*.  
OI IZAN (D), *soler*.  
OMEN (LN), *honra, homenaje*.  
ONDORE (GLN), *resultado*.  
ONURA (B), *provecho*.  
OSALARI (B), *osagillea, medikua*.  
OTS (D), *zaratea*.  
PANTZER, *gerrako tankea*.  
SINISBERA (BG), *crédulo*.  
SOIL (D), *puro, mero*.  
SORTALDE (BGN), *eguzkialdea, lestea*.  
SOSTOR (B), *eragozpena, oztopoa, obstáculo*.  
SUPITUAN (B), *bat batean, súbitamente*.  
TAIU (BG), *traza, estado, porte*.  
TAMAL (B), *lastimea*.  
TRASKIL (BG), *arlotea, desarripado*.  
TTUA (N), *txua, txistua, salba*.  
UDAL (B), *aiuntamentua*.  
UIOL (BG), *torrente, riada*.  
XURIKERIA (D), *zurikeria, adulación, zalamertia*.  
ZABAR (D), *nagia, remolón*.  
ZAIN EGON (BLN), *itxaroten egon*.  
ZANALDI (B), *venada*.  
ZAPUZTU (G), *maiztu, kizkortu, encoger*.  
ZERTZELADA (B), *detalle*.  
ZILLAR (GLN), *zidarra, urre zuria*.  
ZIRUDIAN (D), *iruditzen eban, parecía*.  
ZUT (GLN), *lerdena, jaso, esbelto, tieso*.



## HEMPEL'ek

eskintzen deutsu, eskura ipiñiaz,  
itxasontzientzat margorik onena

HEMPEL izena

Ludi osoan ezaguna.

BILBO-ko ordezkaria: JOSE LUIS ALDEKOA

Gregorio Balparda, 2, 7.º centro — Tel. 322704

BILBAO-12

Equimar — Ercilla, 1 - Tel. 243954 — BILBAO-9

Etxe Nagusia Barzelonan:

Entenza, 85-87 - BARCELONA-15

Tel. 223 24 27 — 223 39 23 — 223 4687

Telegramak: HEMPATURI

# ITXASALDE PAREGABEAN

Ez dau oraindiño galdu ez lorrindu\* bere taiua\* ta gatza gure jaioterri onek. Kresalak ba dauka euki, gaur be, bere gazineurri berezia\*, apartekoa, inguruko gauzak eta personak jasez\* ta ganoraz orniduteko.

Iñoiz egon izan da garbiago, egia esan, gure sorterri maite au. Errietako udalak\* orain, sakelestu bizi dira, eskuarte neurtuakaz; eta urritasuna dan tokian, ez da aberastasunik.

Dana dala, ortik edo andik lortu bear izango dabe udaleko\* gizonak, urbide aundiagoak eta saneamentuko zerak egiteko dirua. Premiña gordiñeko lanak ditue ta.

Bearkunetarako\* bagara, eskubideetarako be, izan egin bear dogu.

## ARRAINTZALEAK MOTEL

Itxasotik onura\* aundirik lortu ezik, jakiña, gure arraintzaleak ezin leitekez pozik ibilli. Aurtengo udabarriak uts emon utsen; eta oraiñarteko atuneteaz\* be, ez dabe esateko dirurik eskuratu.

Ori dala ta, erriko jaiak, Sanantoliñak, ez dabe poz larregirik artu aurten. Dirua urri ibiltea, illuntasunaren pare da kailde\* euskaldunetan. Antzar\* egunean, laguna batu zan; baiña... baldan\* lororik\* ez, eta ozta-oztako poza.

Arrezkero, Algeciras aldera jo dabe ontzi batzuk; eta ereti\* mamintsuagoa izango al dabe, egaluzeaz\* naiz aginzorrotzaz\*.



Leketioko itxasalde zoragarria

«Kresalak ba dauka euki, gaur be, bere gazineurri berezia»

## ARTETXERI BESARKADEA

Esku artean daukazu ANAITASUNA onetan ez baiña, 167 gn. zenbakian ikusi genduan Joxe Artetxeren argazkia\*. Lerdan, zut\*, urrunera begira.

Zerualdean lainoak laino ikusten dituzun arren, ba dakizu, Joxe, ziur asko jakin bere, odeiak\* urratu ostean, eguzkiak ezin izango dituala bere argia ta beroa ukatu.

Albistarien\* idazkerea\* ezin dozula zeuregandu? Bai, azal-keria\* ta xurikeria\* nai izan ezker. Orduan erreze ibilli zeintek, lerro\* luzeetan murgildurik\*. Orraitio, barrua bear orretarako. Erroiak\* ez dabe gari garbirik maite. Ustela dabe gogokoan.

Bai. Idazle zintzoak ba dau naikoa lor\*, esiz\* ta maillaz inguratua dagoanean.



Leketioko portua

«Aurten gure arraintzaleak ez dabe esateko dirurik eskuratu»

## ALTUNA MUSIKARIA

Durangon jaio izan zan, Parisen ikasi eban; Lekeiton il.

Aren illobia ikusi dogu, Joxe Mari Arriola ondarrutar osalariaren\* gorpuari azken agurra egin deusagunean. Uste-uste bariarik joan da Arriola jauna gure artetik. Goian bedi!

Udazkeneko arratsalde epel baiña euritsuan ikusi dogu Juan M. Blas Altunaren illobia, kurutzean zedro orrizko koroia dauala. Aurten 100 urte il zala.

Gure dantza zortzikoa mundu zabalean zear bialtzeko zanal- dia\* izan eban, Iparragirre bitarteko zala.

Lekeiton irakatsi utsan soiñu ori, Altunak Iparragirrerri ain zuzen be. Ta ortik sortu zan «Gernikako Arbola» abestia.

Euskalerrriak ez dau bear dan moduan gogoratu ez goratu Altuna. Aretx orren esangurea maite dabenak, geroago ta gixi- xiago ez ete dira gizarte materialista onetan?

## LAGUNTASUNA

Orixe eskatzen deutse ANAITASUNAK irakurle ta adiskideai. Suskritoze barriak aurkitzea. Asteroko biurtu nai baldin\* badogu, beste askoren laguntasuna naitaezkoa izango da.

E. ERKIAGA

## ARANTZAZUKO BATZARRA

Urrillaren 3 - 5

ESTUDIO GAIA, EUSKEREAREN BATASUNA.

EUSKAL IDAZLE TA IRAKASLE GUZTIAK JOAN LEITEKEZ BERTARA.

DANAK EUKIKO DABE ALKARRIZKETARAKO ES- KUBIDEA.